

- » Bazkide izan nahi al duzu?
- » EIZIEko kideak
- » Hizkuntzen kodeak
- » Jarduerak
  - » Itzulpenaren teoria garaikidea - 2011
  - » «Gaztelania xede III» mintegia - 2011
  - » Euskal Liburuaren Gaua, dabilen elea saria - 2011
  - » Wordfast Classic eta +Tools aurreratua eta Wordfast Pro - 2011
  - » Aldibereko interpretazio praktikak (es-eu-es) - 2011
  - » Idazlea itzultzaileen lantegian - 2011
  - » Zuzenketa lantegia- 2011
  - » Puntuazioa: testuak antolatze gaitza - 2011
  - » Literatura Unibertsala bilduma sustatzeko ekitaldiak - 2010
  - » «Enblemak» liburuaren aurkezpen-ekitaldia - 2010
  - » «Gaztelania xede II» mintegia - 2010
  - » «Testu-zuzentzea» mintegi praktikoa - 2010
  - » Itzultzailearen eguna 2010
  - » Wordfast Classic ikastaroa - 2010
  - » Idazlea itzultzaileen lantegian - 2010
  - » Wordfast Classic eta +Tools aurreratua eta Wordfast Pro - 2010
  - » en > eu itzulpen lantegia - 2010
  - » Zuzentzailea eta testua aurrez aurre - 2010

Hemen zaude: EIZIE » EIZIE Elkarteak » Jarduerak » Euskal Liburuaren Gaua, dabilen elea saria - 2011

## Euskal Liburuaren Gaua, dabilen elea saria - 2011



Euskal liburugintzak bide luzea eta oparoa egin du azken urteotan, eta ez dira gutxi lortutako emaitzak. Egindakoaren guztiaren erakusle dira gaiari buruzko liburu eta azterlan ugariak, baina oraingoan lana eskertu eta goraiatzera gatoz, asmo horrekin sortu baitziren Euskal Liburuaren Gaua eta *dabilen elea* saria.

Liburugintzaren bidean, euskarazko liburuaren —hau da, euskaraz sortu, ekoiztu eta irakurtzearen— aldeko ekimen bat mamitu nahi izan dugu, gure kultur industriak euskal gizarte eleanitzaren garapenari egiten dion ekarpena agerian jarri eta ikusarazteko. Euskal liburugintzaren eragile esanguratsuenetakoak garen bost elkarteek antolatzen dugu ekimen hori urtero: [EEEK](#) (Euskal Editoreen Elkarteak), [EIEK](#) (Euskal Idazleen Elkarteak), [APIE-EIEP](#) (Euskal Irudigileen Elkarte Profesionalak), [EIZIEK](#) (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteak) eta [Galtzagorri](#) Euskal Haur eta Gazte Literatura Elkarteak. Elkarte horiek guztiak, bakoitzak bere esparru eta aukeren arabera, lan eta saiakera handiak egiten dituzte euskal gizarte osoari liburugintzan egiten den lanaren berri emateko. Bestalde, guztiok biltzen gaituenez euskarazko liburuak, lan horretan eragile garen elkarte eta erakundeok elkarlanean jardutea ezinbesteko ikusten dugu.

Lan hori guztia ezagutarazi, eta, bide batez, elkarlana goraiatu nahi da. Hori gogoan, ospakizun kutsu nabarmena izan nahi duen ekitaldia antolatu dugu laugarren urtez: Euskal Liburuaren Gaua. Horretarako, [Kutxaren](#) babesa eta [Donostia Kultura](#) eta [Eusko Jaurlaritzaren](#) laguntza izan dugu.

### dabilen elea saria

Ekitaldiaren osagai nagusia da *dabilen elea* saria ematea. Izan ere, euskal liburugintzan egindako ibilbide jakin bati egin nahi zaio errekonozimendu publikoa sari honen bidez.

Aurten, [Mariasun Landa](#) idazlea saritu dugu elkarteok, aho batez saritu ere. Izan ere, berritzailea izan da Mariasun Landa haur eta gazte literaturaren arloan; oparoa liburuak idazten; hizkuntza askotara itzulita; jende askok irakurria; sari askoren irabazlea eta beste zenbaiten hautagaia; irakurzaletasunaren sustatzaile nekazina...



Sariaren oroigarria [Juan Azpeitiaren](#) *H pieza* da.

Duela hiru urte eskaini zen lehen aldiz dabilen elea saria: [Antton Olariagak](#) (2008), [Joan Mari Torrealdaik](#) (2009) eta [Ibaropena argitaletxeak](#) (2010) jaso dute saria hurrenez hurren.

### Ekitaldia

2011ko azaroaren 10ean egin da ekitaldia, [Donostiako Victoria Eugenia Club](#) aretoan. Bai bertaratuaren esanetan, bai sarituarenean, ederra eta hunkigarria izan da. [Idoia Nobleren](#) gidaritzapean eta [Joxan Goikoetxearen](#) musika lagun, [Aitziber Alonso](#) Galtzagorri elkarteko lehendakariaren agur-hitz ederrak jaso ditugu; Mariasun Landaren ezagun eta lankideak beraren testuak irakurtzen ikusi ditugu oholza gainean; harentzako opari gisa eginiko bideo samur bezain alaia ikusiz gozatu dugu; iazko saritu [Pello Unzurrunzagarri](#) aurtengoari saria ematen lagundu diogu; eta liburuaren inguruan dihardugunok elkarren ondoan egoteko parada izan dugu amaieran, hitz eta pitz, mokadu goxo bat dastatuz.



Bideoa [Hitzen Uberan](#) web orrian argitaraturiko erreportajekoa da.

### Gonbidatuak

Euskal liburugintzaren sektorean diharduen lagun asko izan dira ekitaldian: editoreak, idazleak, itzultzaileak, irudigileak, literatur adituak eta kritikariak, ipuin-kontalariak, banatzaileak, inprimatzaileak, liburu-dendariak eta bibliotekariak. Irakurleak ahaztu gabe, noski. Halaber, Euskal liburugintzari lotutako erakunde eta erakunde publikoen ordezkariak ere hurbildu dira aretora.

